

Aurkezpena: *Euskalingua* – 7

Irakurle, agur t'erdi,

Berriro ere, Durangoko Liburu Azoka aurretik gatzoz gatzoz, oraingoan *Euskalingua* 7. ekartzeko asmoz. Lau urtez argitaratu dugun aldizkaria sendotu zaigu jadanik. Besteetan bezala, hizkuntzaren batuketan, ikerketan eta aplikazioaren inguruko artikulak topatuko dituzu.

Hasteko, korpus mailako lan bi aurkeztu gura ditut. Batetik, Eneko Barrutiaren lana eta bestetik Alberto Mtz. de la Cuadrarena. Lehengoak bizkaieraz adizkiak sintaxi atzizkiakaz elkartukeran –a edo –e bokal epentetikoa hartu behar duten dauka gai eta erabilera klasikoak (literatura idatzikoa) zein den eta gaur egungo lekuan lekuko hizkera askotan zelan erabiltzen den erakusten du. Labur esanda, erabilera klasikoak, salbuespenak salbuespen, –a bokala bada ere, gaur egun herriko hizkeretan –e gehiago erabiltzen dela diosku Barrutiak.

Hiztegi gintzaren arloan, Mtz. de la Cuadraren Nabarnizko hiztegiaren seigarren atala daukagu *Euskalingua* 7. zenbaki honetan, O, P, R eta S-z hasitako berbak. Aurreko ataletan bezala, lexikoa batu ez ezik fraseologia eta adibide erabilerak ere eskaintzen ditu bertan.

Coteronek, terminologia inguruko auzietan, lengoaiaren filosofo eta logikariei askotan ez zaiela lekurik egiten eta filosofia inguruan ere hiztegi teknikoak finkatzeko zailtasun handiak daudela azpimarratzen du. Bere arloan dauden terminologia-arazoak zeintzuk diren azaltzen digu: batxilergoko ikasleek euskaraz filosofia-testuak irakurri behar dituztenean aldakortasun handia topatzen dute bai hiztegi tekniko aldetik –aldaki bat baino gehiago kontzeptu baterako, esate baterako– bai izen grekoen euskaratzearen aldetik –ortografia eta ahoskera aldaki asko ageri dira izen grekoetan–. Aldakortasuna ekiditeko proposamena ere egiten du.

Gaminde eta bestek Derioko euskararen soinu egituraren deskripzio zehatza ematen dute, bai fonetika bai fonologia arlotik. Derioko euskararen diptongoak, bokaleak eta kontsonanteak zeintzuk diren zehaztu ostean, silaba motak ere deskribatu dituzte. Gainera, aztergai duten osagai bakoitzaren azterketa kuantitatiboa egin dute, bideratutako elkarrizketek osatutako corpusa arakatuta.

Bestetik, Martin de Vidales eta bestek euskara irakasleek berba batzuetan azentua zelan ekoizten duten eta zelan uste duten ekoizten dutela aztertu dute, berben silaba kopurua, bokalez ala kontsonantez amaitzen diren eta hiztuna euskaldun zaharra ala berria den kontuan hartuta. Galdetegi baten bidez jaso dituzten emaitzak behin betikoak ez badira ere, badirudi ekoiztutako azentuan erdararen eragina antzeman daitekeela eta ustezko azentuan irakasleen preskripziozaleatasuna antzeman daitekeela. Edozein kasutan ere, euskaldun zaharren kasuan ama-azentua eta horrek batera-azentuan izan dezaken eragina ere aztertu beharko litzateke.

Azkenik, aplikazio mailan, eta hizkuntza teknologiari esker lortuta, produktu baten eta aplikazio askotarako erabil daitekeen ezagutza-base baten berri izan dezakezu, azken bi artikulak irakurrita. Aholab taldeko Sanchez eta bestek testua ahots bihurtzeko modua (testu-ahots bihurtzeko) PDAn egokitu dute; horrela, posiblea da PDA pantaila txikian ageri den testua PDAk irakurtzea. Horretarako, tratamendu linguistikoa eta ahots sintesia egin behar izan dute.

IXA taldea, euskararen prozesamenduari begira, eta interpretazio semantikoa aplikazioetan egokitu ahal izateko, EuskalWordNet ezagutza-base lexiko-semantikoa garatzen ari da. Prozesamendu sintaktiko eta semantikoa egiteko, lexikoiak hitzei buruzko informazioa ez ezik esanahi edo adierari buruzkoa ere eskaini behar du. Sinonimia, antonimia, hiperonimia-hiponimia, osotasun-zatia erlazio semantiko eta hierarkien arabera dago antolatuta ezagutza-basea. EuskalWordNet non topa dezakegun eta zertarako erabil daitekeen ere azaltzen digute, besteak beste, thesaurusak egiteko edo desanbiguazio kasuak argitzeko.

Ikusten duzunez, hizkuntzaren inguruko gai oso ezberdinek daukate lekua *Euskalinguan*. Beste behin, gura izanez gero, zure lana bidaltzeko gonbitea egin gura dizut.

Esti Amorrortu, editorea